



Ortuzar: “Pozik noa: EAJ-PNV handiago egin dugu eta gehiago hurbildu gara amesten dugun Euskadi aske horretara”

Euskadi Buru Batzarrean orain arteko kargua utzi duen buruak bertso batekin eman dio amaiera EAJ-PNVren Aberri Exekutibaren burutzan hamabi urtez eman duen aldiari: “Inork ez beza inoiz ahaztu: batasuna da indarra!”

“Zorionekoa eta zoriontsua izan naiz. Eta, elkarrekin, gauza handiak egin ditugu. Alderdi hau handiago egin dugu eta Herri hau aurrera eraman dugu. Euskal Aberri aske horretara hurbildu gara, denok amesten dugun burujabetasunera. Gure armarrarian daramagun Zazpiak Bat horretarantz pausu berriak eman ditugu eta gure Ikurrina eta gure anagrama gorenean jarri ditugu. Eta nik ezin dut gehiago eskatu. Eskerrik asko!”. Emozioa disimulatu ezinik, Andoni Ortuzarrek Euskadi Buru Batzarrean orain arteko kargua utzi duela, agur esan nahi izan die alderdikide jeltzaleei, bere azken hitzak bertso batekin amaituz. Orduan jaso du txalo zaparrada beroa. Agurrak halakoxea behar zuen Atano IIIan, pilotaren eta bertsoaritzaren aldarean, aldi berean santutegi politikoa ere baita talde jeltzalearentzat. Pilotaleku honetan bertan, Joseba Elosegi gudariak bere buruari su eman zion Francisco Franco diktadorearen aurrean Euskadiren askatasuna erreklamatzeko; toki honetan bertan eman zuen bere lehen diskurtso jendetsua Xabier Arzallus gogoratuak; eta hementxe amaitu du bere ibilbide politikoa Ortuzarrek, jeltzaleen burutzan hamabi urte eman ondoren.

“Bere askatasun nazional eta sozialerako bidean aurrera doan Herri bat gara”, aldarrikatu du Ortuzarrek. “Eta baten batek esan behar dio Herri honi orain norantz joan behar duen. Baten batek gidatu eta bidea erakutsi beharko dio martxan dagoen Herri honi. Azken berrogeita hamar urteotan guk egin dugu, eta guk egiten jarraitu behar dugu. Lanketa horretan aritu izan gara Batzar Nagusi honetan, horixe landu dugu atzo onetsi ziren txostenetan, horixe egingo dute gaur aukeratu dugun EBB berriak eta bere presidentek. Zorte on, Aitor eta talde berria! Katea ez da eten! Bidea ez da eten. Alderdia Gara!”, oihu egin du amaierako bertsoa abestu aurretik .

Hamazazpi urte Sabin Etxean,
ez da kopuru kazkarra.
Betiko ez gara arlo denetan,
dago berritu beharra.
Agur honekin mezu batean
jarri nahi dut azpimarra
inork ez beza inoiz ahaztu:
batasuna da indarra!!!



Ortuzar: “Me voy feliz: hemos hecho más grande a EAJ-PNV y nos hemos acercado más a esa Euskadi libre que soñamos”

El presidente saliente del Euzkadi Buru Batzar ha cerrado su etapa de doce años al frente de la Ejecutiva Nacional de EAJ-PNV con un ‘bertso’: “Que a nadie se le olvide, nunca: la unidad hace la fuerza”

“He sido feliz. Y juntos hemos hecho grandes cosas. Hemos hecho más grande aún a este Partido y hemos avanzado como Pueblo. Nos hemos acercado más a esa Euskadi libre y soberana que soñamos. A ese Zazpiak Bat de nuestro escudo. Nuestra ikurriña y nuestro anagrama se han colocado en el punto más alto. No puedo pedir más. Eskerrik asko!”. Visiblemente emocionado, el presidente saliente del Euzkadi Buru Batzar, Andoni Ortuzar, ha querido decir adiós a la militancia jeltzale con una breve y emotiva intervención que ha coronado con un ‘bertso’ que ha arrancado una atronadora ovación. No podía despedirse de otra manera en el Atano III, templo de la pelota y del bertsolarismo, pero también un santuario político para la formación jeltzale. Aquí el gudari Joseba Elozegi se quemó a lo bonzo ante el dictador Francisco Franco para reclamar la libertad de Euskadi; aquí pronunció el recordado Xabier Arzalluz su primera gran discurso multitudinario; y aquí ha cerrado su trayectoria política Ortuzar tras doce años al frente de la Ejecutiva nacional jeltzale.

“Somos un Pueblo en marcha hacia su libertad nacional y social”, ha proclamado Ortuzar. “Y alguien tiene que decirle a este Pueblo hacia dónde debe ir ahora. Alguien tiene que liderar a este Pueblo en marcha y mostrarle el camino. Lo hemos hecho en los últimos cincuenta años, y lo debemos seguir haciendo. De eso ha ido esta Asamblea General, las ponencias aprobadas ayer, el nuevo EBB y la nueva presidencia del EBB elegida hoy. Zorte on, Aitor eta talde berria! Katea ez da eten! Bidea ez da eten. Alderdia Gara!”, ha exclamado antes de cantar su bertso de despedida.

Hamazazpi urte Sabin Etxean,
ez da kopuru kazkarra.
Betiko ez gara arlo denetan,
dago berritu beharra.
Agur honekin mezu batean
jarri nahi dut azpimarra
inork ez beza inoiz ahaztu:
Batasuna da indarra!!!

(Diecisiete años en Sabin Etxea,
no es poco tiempo.
Pero nada es para siempre,
es preciso renovarse.



IX. BATZAR NAGUSIA
ALDERDIA GARA
ATANO III PILOTALEKUA **DONOSTIA** MARTXOAK **29/30**

Con este mensaje de despedida
quiero subrayar una idea
para que a nadie se le olvide, nunca:
¡la unidad es la fuerza!